


Errenteriako Emakumeen Etxearen proiektua:

**gogoeta-prozesuan parte
hartu duten emakumeen
proposamena**

2016ko abendua

elhuyar
Aholkularitza





Beste hainbat herritan bezala, **emakumeentzako erreferentziazkoa izango den espazio baten aldarrikapena** Errenteriako mugimendu feministaren **aspaldiko aldarrikapena** da. Gure erkidegoan, udal berdintasunerako arloak sortzearen ondorioz etorri dira. Lehendabizikoak 2003. urtean sortu ziren Ermuan (Emakumearen Etxea) eta Arrasaten (Emakumearen Txokoa). Segidan Eibarrekoa etorri zen. Baina loraldia, 2010. urtetik hona etorri da. Gipuzkoan, Donostian, Azpeitian eta Hernanin sortu dira emakumeentzako erreferentziazko espazioak. Bizkaian, Basaurin eta Ondarroan.

Gure inguruan, **erreferentzia nagusia Donostiakoa** dela ezin dugu ukatu, batetik, kudeaketa-ereduaren aldetik bide bat zabaldu duelako, udalaren eta mugimendu feministaren arteko elkarlana eta kudeaketa partekatua sustatuz, eta bestetik, hurbiltasuna dela-eta, erreferentzia bihurtu delako gure herriko eta eskualdeko hainbat eta hainbat elkarte eta emakumerentzako.

Errenteriako Udalak bere ibilbidea egina du emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzea helburu duten berdintasunerako politikak garatzen bere Berdintasun Arlotik. Konpromiso horren adierazgarri da, besteak beste, dagoeneko berdintasunerako bi plan garatu izana.

Lehendabiziko planak, 2008-2012 aldirako diseinatu zenak, dagoenerako jasotzen zuen berdintasunaren eremuan **erreferentziazkoa izango zen espazio edo gune baten proposamena** (Planaren 1.3.2. ekintza: *Berdintasunaren eremuan erreferentziala izango den espazio edo gune bat diseinatzea*). Baina lehen plan haren indarraldia amaitu zen, ekintza horren garapenik gabe.

2013. urteko otsailean onartu zen *Errenteriako Emakume eta Gizonen Arteko II. Berdintasunerako Plana 2013-2016* aldirako. Plan horrek, ez zuen lehen planak jasotzen zuen erreferentziazko espazioaren proposamena jasotzen baina **lanerako hainbat ardatz** jasotzen ditu, eta horietako bat **emakumeen ahduntzeari dagokiona** da, helburu hauek lortzera bideratutakoa:

- Herriko emakumeak ahduntzea.
- Herriko emakumeen eta emakume-taldeen arteko sarea indartzea.
- Emakumeentzako eredugarri/erreferente izango diren emakumeak ikustaraztea.

Egitasmoak behar zuen **bultzada**, 2015eko maiatzetik dagoen gobernu-taldearen alderdi nagusiak, bere hauteskunde-programan jaso zuen proposamenetik etorri da:

*“Emakumeen Etxea edo Emakumeen Txokoa sortzea:
Orereta/Errenteriako emakume guztien parte hartzearekin sortuko
dugu, bereziki emakume elkarte, mugimendu feminista eta Berdintasun
Kontseiluko kideekin”*



Proposamena Errenteriako berdintasunerako Kontseiluan aztertu ondoren, **honakoa adostu zen:**

- **Parte hartzeko prozesu bat zabaltzea**, non gogoeta egingo zen era honetako ekipamendu edo espazio baten behararen inguruan: zer beharrei erantzun behar zien, zer funtzio bete beharko lituzkeen, zein ezaugarri beharko lituzkeen, zein erabileratarako balio beharko lukeen, nolako kudeaketa komeni zen, etab.
- Eta, **gogoeta hori egitea, hasera batean ekipamendu edo espazio horren “erabiltzaile” izango lirartekeen herritar eta eragile nagusiekin**; zehazki, udalerriko (baita eskualdeko) emakumeak; modu batera edo bestera, emakume-elkarte edo elkarte feminista gisa antolatuta daudenak; eremu sozio-politikoan (sindikatuak, alderdi politikoak, elkarteak, gizarte-mugimenduak) aktibo direnak; erakundeekiko solaskidetza bideratzen duten egiturak (Errenteriako Berdintasunerako Kontseilua)...

Eragileekin lan eginez, batetik, sortzen den ekipamendu edo espazio horren bitartez hobeto erantzun nahi zaio “erabiltzaile” izango diren emakume eta eragileen beharrei. Eta, bestetik, baldintzak sortu nahi izan dira egitasmoarekiko ilusioa eta atxikimendua sortzeko, azken bultzada honetan, udal-erakundetik luzatu den egitasmo-proposamena izan dela kontuan hartuta.

2016ko uztailetik azarora luzatu den prozesuan, **85 bat emakumek** landutako proposamena da orriotan jasotzen dena. Emakume guztiek maila indibidualean parte hartu badute ere, emakume horien artean **20 bat emakume-elkarte edo elkarte feministetako kideak** egon dira.

Azkenik esan hemen jaso den **proposamenak ezinbestean dinamikoa izan beharko duela**: praktikan ikasitakoarekin eta baldintzak aldatu ahala egokitzen joan beharko da. Momentuz, proposamen hau, egun dauden baldintzei eta gainditu nahiko lirartekeen mugei erantzuteko ahaleginaren ondorio da.



Dokumentuak honako atalak jasotzen ditu:

1. Zertarako etxea?
2. *Etxekideen* printzipioak
3. Etxearen erabilerak eta antolaketa espaziala
4. Etxearen erabiltzaileak
5. Etxearen erabaki-guneak
6. Etxearen izena
7. Etxearen kokapena





1. Zertarako Etxea?

Errenteriako Emakumeen Etxeak **erreferentziatzko gunea** izan nahi du beste emakume batzuekin egon nahi duten Errenteriako zein eskualdeko emakumeentzat topagune. Erreferentzia, maila fisikoan zein sinbolikoan, eta erreferentzialtasun hori **honako helburuekin lotuta eraikitzea** proposatzen da:

- **Formakuntza lantzeko eremua** izatea, baita Errenteriako Ahalduentze Eskolaren erreferentziatzko espazio izatea ere.
- **Kontzientzia feminista garatzeko eta aktibismo sozio-politikoa lantzeko** eremua izatea.
- Emakumeen arteko **harremanak, sareak eta lankidetzak** sustatzeko tokia izatea.
- **Indarkeria pairatzen duten edota haren kontra aktiboki lan egin nahi duten emakumeentzako hainbat baliabide eta dinamika** eskainiko dituen gunea izatea.
- Emakumeen errealitatearen inguruko **informazioa eta datuak jasotzeko** garaian, erreferentziatzko iturri izatea.

Errenterian kokatutako ekipamendua izan arren, **eskualdeko gainerako herriei eta emakumeei ekarpena** egin behar diela garbi ikusten da, eskualdeko emakumeekin eta emakume-taldeekin baliabideak eta lanerako eremuak **konpartituz**.

Arnasgune gisa ere irudikatzen da:

- Askapen pertsonalerako eremu gisa;
- Indarkeriarik matxistarik gabeko eremu gisa;
- Ahalik eta askeen izan eta ahalik eta gutxien epaituak izango garen eremu gisa;
- Sentsibilitate desberdinetako emakumeak eroso sentiaraziko dituen;
- Emakume-talde zapalduenei edo babesik gutxien duten emakume-taldeentzako harrera-gune eta babestoki izango dena;



1. Zertarako Etxea?

Finean, **ahalik eta emakume gehien erakarriko dituen egitasmo bat** izan nahi du, norberaren ohiko harreman-sareetatik haratago.

Etxea, toki fisiko gisa ikusten den arren, harreman-sarearen eta jardueraren ikuspegitik, beste eragile batzuekin (herriko elkarteak, udal-zerbitzu eta - ekipamenduak) **herri-mailan artikulatuko den sare gisa** ere ikusten da.





2. *Etxekideen* printzipioak

- Errespetuz lan egitea eta parte-hartzaile guztiak eroso sentitu araztea
- Ahalik eta irekiena izatea eta ahalik eta emakume gehienek parte-hartzeko bideak irekitzea
- Emakumeon egoera ezberdinak presente edukitzea eta, aniztasun horretan, kolektibo desberdinen iritzia jasotzeko eta partaidetza bilatzeko ahalegin aktiboa egitea.
- Aniztasunean elkar ezagutu, iritzi desberdinetatik elkar elikatu eta elkarrengatik ikastea.
- Etxearen helburuak garbi edukitzea eta partekatzea.
- Proiektuaren, Etxearen, jarraikotasuna bermatzeko baldintzak sortzea eta gai izatea, udal-gobernuan gerta daitezkeen aldaketak gora-behera.
- Eskualde-mailako erreferentzialtasuna lortzea eta eskualdeko pertsonak eta eragileak artikulatzeko gai izatea.
- Emakumeak Etxearen kudeaketan inplikatzeko.
- Erabakitzeko prozesuak eta guneak irekiak eta zabalak izatea eta, bere horretan, aurrera eramateko baldintzak sortzea.
- Erabakitzeko prozesuetan erritmo propioak markatzea.
- Elkarren artean harremanak onak eta giro ona izatea.
- Parte-hartzaileen bizitzak jasangarriak izan behar direla kontuan hartzea eta konpromiso-maila desberdinak errespetatzea.
- Ahal den neurrian, menpekoen zaintza bermatuz erantzunkidetasuna sustatzea.
- Kanpotik ere, presentzialki egon gabe, proiektuaren berri izateko eta parte hartzeko aukerak zabaltzea



3. Etxearen erabilerak eta antolaketa

3.1. Erabilerak

Zein eratako gunea izan nahi duen eta zein nolako jarduera garatu nahi duen kontuan hartuta, **Etxeak hainbat ezaugarri izan behar ditu**. Honakoak nabarmentzen dira:

- **Etxea irisgarria eta agerikoa** izatea, jende guztiak ezagutzeko moduko tokian eta erraz identifikatzeko moduko eraikinean egotea.
- Ekipamenduak **erabilera anitzetarako** balio behar du eta espazioa nagusiki diafanoa izango da. Eraikinaren antolaketa zein horniketa hori kontuan hartuta egitea garrantzitsua izango da.
- **Kanpo-aldea erabiltzeko moduan** pentsatzea (kanpoan ere jarduerak egiteko aukera egon dadin)

Aurreikusten diren erabileren **artean batzuk nahiko finkoak edo maiztasun handikoak** izango dira eta, beraz, **antolaketa finkoagoa** beharko dute:

- **Harrera-gunea**, datorrena artatzeko.
- **Bulegoa** edo lanerako gunea.
- **Bilera-gela txikia**, zerbitzuak eskaintzeko edo jende gutxi bilduko duen bileretarako.
- **Bilera-gela handia**, bilera handiak egin edota ikastaroak edo hitzaldiak bezalako jarduerak antolatzeko.
- Zatiren batean, etxe kutsua izan dezan ere garrantzitsua ikusten da. **Goxo egoteko moduko eremu bat** egokituta izatea proposatzen da beraz (sukalde edo egongela itxurakoa).
- Takillak edo taldeek beraien gauzak utzi edo gorde ditzaten **armairuak**.
- **Liburu eta argitalpenetarako txokoa**.



3. Etxearen erabilerak eta antolaketa

Beste hainbat erabilera aurreikusten dira, puntualagoak izan daitezkeenak baina, edonola ere, espazioa antolatzeko garaian aurreikusi beharko direnak:

- Jarduerak daudenerako, zaintza-zerbitzua
- Erakusketak

Badira Etxearen jardueran aurreikusten diren **bestelako erabilerak**, bertan baliabideak eskainiz baina, **udalerriko beste ekipamendu edo zerbitzu batzuekin lankidetzan** eskaintzeko modukoak liratekeenak. Horretarako, bi alderdi ikusten dira garrantzitsuak:

- **Kanpo-jarduerak direnean ere, taldea eta talde-sena Etxean bertan egiteko baldintzak lantzea**
- **Lankidetzak-hitzarmenak edo harremanak lantzea.**

Era honetako **lankidetzan eremuan honako ekipamenduak** ikusten dira:

- Liburutegia
- KZgunea
- Xenpelar arte eskola
- Habian
- Etab.

3.2. Jarduera-motak

Etxean egongo den edo garatuko den **jardueran izaera desberdinekoak** aurreikusten dira:

- **Publikoak, herritarrei zabalduak:**
 - **Nori zuzenduak:** gehienak izango dira emakumezkoen zuzenduak, baina izango dira mistoak edo gizonezkoentzako irekiak ere, beti ere, emakume eta gizonen berdintasunaren eta feminismoaren balioen sustapenarekin lotutako edukiak badira.



3. Etxearen erabilerak eta antolaketa

- **Nork antolatuak:** Udalak, Emakumeen Etxeko kideek, edota kanpo-eragileek (eskaera behar den bezala egin eta ontzat emanak izan badira).
- **Zerbitzu-izaerakoak:** profesionalek edota bolondresek eskainiak. Dinamizatzailleak eskainitako harrera, barne. Ordu-tegi jakinetan eskainiko dira.
- **Itxiak edo pribatuak:** *Etxekide* diren pertsonak, elkarteek edo taldeek modu itxian antolatu ahal izango dituztenak, beti ere, Etxea zertarako eta nola erabil daitekeen adostutakoaren arabera (*Etxekide* egiten garenean sinatzen dugun eskubide eta betebeharren dokumentuak jasotakoaren arabera)





4 Etxearen erabiltzaileak

Etxearen erabilera ahalik eta zabalena eta malguena izan dadin, **honako planteamendua egiten da erabileraren ikuspegitik**.

Etxeak jendaurreko ordutegi bat izango du: oro har, arratsaldez egongo da publikoarentzako zabalik. Baina astean goiz batean ere jendaurreko ordutegia edukitzea interesgarria izan daiteke.

Baina zabalik ez dagoenean ere, *Etxekideek* Etxea erabiltzeko aukera izan dezaten proposatzen da. Ordutegi hori (Etxea jendaurrerako zabalik dagoen ordutegia barne hartuta, 10:00etatik 23:00etara izan daiteke, astelehenetik larunbatera).

Nortzuk izan daitezke *Etxekide*?

16 urtetik gorako emakume norbanakoak.

Zein da *Etxekide* izateko modua?

Izena eman beharko da eta izena emateak, funtsean zera esan nahi du:

- Norberaren datuekin *Etxekide* gisa erregistratzea¹.
- Etxekide gisa eskubide eta egiteko batzuk onartzea².
- Zein konpromiso/ardura/egiteko hartzeko prest gauden adieraztea, lanak antolatzeko garaian lagungarri izan dadin³.

Etxea jendaurrerako itxita egon arren, beraz, erabiltzaile gisa ditugun eskubide eta betebeharrak kontuan hartuz, *Etxekideek* sarbidea izango dute.

Sarbide hori lotuta egongo da erabiltzailea eta sarrera- eta irteera-orduak identifikatzeko aukera emango duen sistemaren batekin. Alegia, nork eta zein ordutan erabili duen jakiteko modua izan behar dugu (adb. giltza elektronikoa izendun bidez, kode pertsonalaren bidez identifikatuz).

¹ *Etxekideen* erregistroan zein datu jaso nahi ditugun adostu beharko dugu baita datutegi hori zertarako erabiliko den ere. *Etxekide* izateko aukera 16 urtetik gorakoek izan dezaten planteatzen da.

² Adostu egin behar dugu zein diren eskubide eta betebeharrak.

³ Osatu egin beharko da zertarako prest gauden jasotzeko egokien jotzen dugun zerrenda jasotzen duen dokumentua.



5. Etxearen erabaki-guneak

Etxea kudeatzeko ereduaren ikuspegitik Errenteriako Udalaren eta *Etxekideen* arduren inguruan honako proposamena egin da.

Errenteriako Udalak bermatuko ditu:

- Emakumeen Etxe gisa erabiliko den eraikina.
- Etxearen hornidura.
- Garbiketa eta mantenua.
- Etxearen dinamizatzaileren kontratazioa (lanaldi partzialarekin).
- Etxearentzako jardueren udal-programa definitzea eta gauzatzea (besteak beste, Ahalduntze Eskola).
- Etxearen ordainpeko jardueraren finantziazioa. Egun (2016. urtean) Ahalduntze Eskolak duen aurrekontua jarduera hori finantzatzera bideratzea proposatzen da, diru-poltsa horrek behera egingo ez duela bermatuz.

Etxekideek, berriz, honako ekarpena bermatuko dute:

- Etxearen kudeaketa-organoetan, Batzarrean eta koordinazio-gunean, parte hartzea.
- Etxearen jarduera osatu, eta udal-programari emakumeena gehitu dinamizatzaileren laguntzarekin.

Etxearen baitan bi lanerako esparru proposatzen dira:

- a) **Batzarra**, erabaki-gune nagusia
- b) Etxearen **koordinazio-organoa**, Batzarrean adostua marko gisa hartuta, unean uneko erabakiak hartzeko gunea

Ez da baztertzen bestelako lantaldeak sortzeko aukera.



5. Etxearen erabaki-guneak

5.1. Batzarra

Batzarra: kideak

- *Etxekide* gisa izena emanda dauden norbanako emakumeak, norbanako gisa.
- Etxearen dinamizatzailerak
- Berdintasuneko zinegotzia
- Berdintasuneko udal -teknikaria.

Batzarrak irekiak izango dira eta interesa duten edo Etxerako jardueraren proposamenak eginak dituzten pertsona edo eragileek parte hartu ahal izango dute, baina *Etxekide* ez badira, ez dute erabakietan parte hartzeko aukerarik izango.

Batzarra: funtzionamendua

Urtean lau bilerak egingo ditu Batzarrak eta honakoak landu eta erabakiko dira Batzarraren bileretan:

- Jarduera eta zerbitzuen ikuspegitik, **Etxearentzako proposamenak aztertu** (Etxearen printzipio eta helburuekin bat datozenak, koordinazio-organoren lehen azterketa pasa ondoren). Programa osatzeko proposamenak hiru tokitatik jasoko dira: Udala, *Etxekideak* eta kanpoko eragileak. Lantaldeak sortuko balira, hortik ere etor daitezke.
- **Urteko programa adostu.**
- Urteko **programari segimendua** egin.
- Etxearen **funtzionamendu eta erabilera egokiarekin lotutako alderdiak adostu** eta horiei segimendua egin: *Etxekideen* eskubide eta betebeharrak; koordinazio-organoren osaketa; ordutegiak, etab.

Batzarrak **koordinazio-organoko kideek prestatu eta dinamizatuko** dituzte.



5. Etxearen erabaki-guneak

5.2. Koordinazio-organoa

Koordinazio-organoa: kideak

- Batzarreko ordezkariak, norbanakoak
- Batzarreko ordezkariak, elkarteak
- Etxearen dinamizatzaila
- Berdintasuneko zinegotzia

Koordinazio-organoa: funtzionamendua

Koordinazio-organoak **urtean 6 eta 11 bilera artean** egitea aurreikusten da (bi hilean behin edo hilero, udan atsedena hartuz), jarduera-mailaren arabera.


Bere eginkizunak honakoak izango dira:

- **Batzarrean adostutakoak gauzatzeko behar diren baldintzak** sortzea eta eguneroko erabakiak hartzea (betiere, batzarretan adostutakori ahalik eta leialen).
- **Etxearen erabilerarekin eta funtzionamendurekin lotutako alderdiei segimendua** egitea, sortzen diren erabilera okerrak edo disfuntzioak identifikatzea eta horiek zuzentzeko proposamenak edo aukerak lantzea.
- Koordinazio-organoan lantzen diren gaien artean **Batzarrean landu eta erabakitzekoak direnak identifikatzea.**
- **Batzarraren bilerak antolatu eta kudeatzea:** deialdiak egin, dokumentazioa prestatu, bilera dinamizatu, aktak egin, etab.
- Etxearen programazioari begira, egin diren proposamenak aztertu eta **Etxearen printzipio eta helburuekin bat datozela bermatu,** Batzarrera eraman aurretik. Etxearen printzipio eta helburuekin bat ez datozela baloratuz gero, argudiatu eta erabakiaren berri eman proposamena egin duenari.
- **Udalarekin eta Berdintasun Arloarekin koordinazioa eta solaskidetza** mantentzea, Etxearen beharrak zein diren transmititu eta, ahal den neurrian, bermatzeko batetik, eta bestetik, Udalak Etxearen inguruan behar duen informazioa eskura izan dezan.



5. Etxearen erabaki-guneak

- Etxearen jarduerarekin zuzenean lotuta dauden **bestelako gune edo sareetan Etxearen partaidetza eta presentzia** bermatzea (Emakumeen Etxeen sarea, adibidez edo Emakumeen Etxeak sortzeko prozesuetan murgilduta dauden herrietan gure esperientziaren berri ematea).





6. Etxearen izena

Etxearen izena dela eta, Etxea definitzeko prozesuan parte hartu duten emakumeek, aukera desberdinen artean, bakarra proposatzera iritsi gabe, **honakoa proposamenak lehenetsi dituzte:**

- Joxepa Anttoni Aranberri
- Xamakoerreka
- Laura-enea

Joxepa Anttoni Aranberri

Elixabete Perez Gazteluk, Joxepa Anttoni Aranbarri Petriarenari buruzko obra biografikoak jasotzen duen modura:

Errenteriako bertsolaria, datuak eta bere lana kontserbatzen diren gerra aurreko emakumezko bertsolari bakanetakoa.

Errenteriako Berdintasunerako Kontseiluak deitutako "Mariasun Landa" sarien lehen edizioan Iñigo Legorbururen "Joxepa Anttoni Aranbarri, Xenpelarren itzulpean argi-izpi bat" artikulua saritu zen arte, (artikuluaren izenburuak ongi jasotzen duenez) itzalean egondakoa, beharbada, bere osabaren irudi indartsua dela eta. Saria eman izana (2011ko martxoan) akuilu izan zen, Berdintasunerako Kontseiluak bertsolariaren biografiaren egileari ikerketa-lan sakona eskatzeko.

http://www.errenteria.info/files/Joxepa_Antoni_Aranberri.pdf (euskaraz)

Etxeak emakumezko baten izen propioa eramateko proposamenaren bidez zera planteatu nahi da: emakumeek herriari egindako ekarpena ikustaraztea eta aitortzea, izen propioen bidez ere egin beharra dagoela.

Xamakoerreka

Koldo Ordozgoitik eta Juan Miguel Lacunzak (Oarso aldizkariaren bidez) gogorarazten diguten modura, 1845ean sortutako Fabrika Handian ehunak eta oihalak egiten zituzten. Oso famatuak ziren bertako harizko maindireak. Patxiku Zelaia izan zen ehun horiek lehertzeko, zabaltzeko, gunetako bat. Errenteriako hedapenarekin eta, Patxiku zelaia txikia geratuta, Fabrika Handiak laster bilatu behar izan zituen beste zelai batzuk egindako ehunak zabaltzeko, eta zelai horiek Fanderia ingurukoak izan ziren. Fanderiatik zetorren eta lantegia zeharkatzen zuen



6. Etxearen izena

XAMAKOERREKA ubidean bertan garbitzen zituzten lihozko oihal eta maindireak - ur haiek oso garbiak baitziren- eta uretan garbitutako oihalak gurdietan eramaten zaituzten Fanderiako zelaietan zabaldu eta eguzkitan zuritzeko. Horregatik, urte askotan ohikoa izan zen Fanderiako zelaiak oihal zuriz eta izaraz beteta ikustea. Agian horregatik, Patxiku zelaiaren jatorria eta ehunak eta oihalak zabaltzeko sortu izana ezezaguna izan dugu herritar gehienok. 1975. itxi zen eta handik seizpazazpi urtetara suntsitu zen Sociedad de Tejidos de Lino enpresako Fabrika Handia. Bere irudia galdua dugu, baina ez bere memoria.

Izenak, toponimoa mantentzeko aukera emateaz gainera, bere bidez, tokian bertan emakumeek garatutako jarduera bat (oihalak garbitu eta lehortzekoa) aitortzeko aukera eskaintzen digu, seguru aski, ez neke handirik gabe egindakoa (hortik, beharbada, ZAMA hitzari erreferentzia).

http://www.errenteria.net/es/ficheros/57_18852es.pdf (euskaraz)

http://www.errenteria.net/es/ficheros/57_21496es.pdf (gaztelaniaz)

Laura-enea

Laura Irasuegi, borroka sozialekin eta feminismoarekin konprometitutako emakumeen belaunaldi bateko kide izan zen, ondorengo belaunaldiei erakutsi ziena elkarrekin bizitzeko, maitatzeko, gozatzeko, kalea okupatzeko, familia osatzeko... beste moduak bazirela, emakumeentzako propio gordetako horietatik eta zenbait kolektibori ukatutako ohiko horietatik haratago. Ideia eta printzipio argien gainean eraikitakoa, batez ere, beraien bizitzen eta bizimoduaren bidez erakutsi ziguten: praktika jakinekin, beraien gorputzekin, beraien presentziekin.

Zoritxarrez gazte hil zen Laura (1953-2010), eta bere izenak, bera gogoratzeko balio izateaz gainera, balio digu gogorarazteko zer nolako garrantzia izan zuen belaunaldi oso batek gure erreferentzia-markoa zabaltzeko gure bizitza-proiektuei- pertsonal zein kolektiboei- dagokienez, askatasunean eta berdintasunean oinarritutako balio garbiak transmitituz.

Laura Irasuegi izenak gainera, balio digu izen bereko beste emakume bat gogora ekartzeko, lehenaren izeba izan zena. 1937. urtean erbestera behartuta, 1957. urtean itzuli zen Errenteriara. Bere bizitzak gogorarazten digu, bai nondik gatozen, baita berak bizi izandako zenbat kontu oraindik ere gainditu gabe ditugula: gerra, erbestea, emakume izateagatik



6. Etxearen izena

profesionalki aitortua ez izatea edo norberaren lanbidea garatzeko ezintasuna, etab.

<http://sustatu.eus/1357132002192> (euskaraz)

<http://egoibarra.eus/es/fotos/ninos-de-la-guerra/laura-irasuegui>
(gaztelaniaz)

Lauraren izenak, Joxepa Anttoni Aranbarrirenak bezala, bere pertsonaren bidez, aukera ematen digu herrian erreferenteak izan diren emakumeak ikusgarri egiteko. Laura-eneak, gainera, "enea" atzizkiaren bidez, Etxearen etxe izaera edo emakumeen jabegoarena indartzen du.



7. Etxearen kokapena

Udalak Etxearentzako proposatzen duen kokapena, gutxi gora-behera On-bide zegoen tokia da, Patxiku zelaia zegoen plaza dagoen tokian. Ekipamendua bertan kokatzeaz gainera, asmoa da, plaza hori bere osotasunean egokitua eta moldatzea. Proposamena egoki ikusi dute prozesuan parte hartu duten emakumeek eta ez da kokapenaren inguruko eragozpenik planteatu.

